

GIZARTE ZERBITZUEN ESTATISTIKA

Emaitzen aurrerapena

Aurkibidea

1. ERAKUNDEAK ETA ZENTROAK	5
1.1. Erakundeen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia	5
1.2. Erakunde eta zentroetako langileak	7
1.3. Erakunde eta zentroen gastua	9
1.4. Sistemaren finantzaketa	11
2. EGOITZAK	13
2.1. Zentroak eta plazak	13
2.2. Erabiltzaileak	15
2.3. Egoitzetako langileak	16
2.4. Egoitzen gastua	18
2.5. Egoitzen finantzaketa	20

Gizarte-zerbitzuen estatistika

Gizarte-zerbitzuak, beste esparruek estaltzen ez dituzten gizarte-beharrei zuzenduriko baliabide eta jarduera multzo gisa ulertuak, sistema irekitzat hartzen dira. 1988 urteaz geroztik –urte horretan ekin zitzaion estatistikari-, hainbat zerbitzu, hala nola haurtzaindegia eta adingabeak eraldatzeko zentroak, sistematik atera dira beste erakunde batzuen esku gelditu diren heinean. Hala eta guztiz ere, gizarte-zerbitzuetara bideratutako gastuak gora egiten jarraitzen du, jarduera berriak garatzeagatik; jarduera berri garrantzitsuenak prestazio ekonomikoetara eta hirugarren adinera bideratu dira, hala nola, Pobreziaren Aurkako Planera, eguneko laguntza zentroetara, atsedenaldi zentroetara eta bestelako baliabideetara.

2003. urtean, estatistikaren erreferentziako urtea, 2001. urtean hasitako eskumen-aldaketak amaitu ziren; urte horretan, hain zuzen, erabaki zen laguntzarik behar ez zuten pertsona adindunen zaintza udal esparruari lotuko zitzaiola eta menpeko pertsona adindunena, berriz, foru esparruari.

Azterketa honi dagozkion datuek adierazten dute sektoreak 1.073 milioi euroko gastua izan duela, aurreko urtean baino 157 milioi gehiago, eta, ondorioz, sektoreak bere partaidetza handitu egin duela ekonomiaren osotasunean, BPGren %2,2ra iritsi baitzen 2003. urtean. Gastu-hazkunde horrek %17ko igoera ekarri zuen aurreko urtearekiko, eta azpimarratzekoa da inbertsioan izandako igoera handia (%32).

%9,8ko urteko tasa metatuaz, azkeneko hamarkadako (1994-2003) hazkunde nominalak %2,2 gaitzen du ekonomiaren osotasunean izandako hazkunde. Epe horretan, gizarte-zerbitzuetako gastua bikoiztu egin da, eta, horrela, epe horretarako hazkunde metatua %134koa izan da gastu arruntean eta %108koa familiei egindako zuzeneko transferentzietan. Bilakaera hori gastu, diru-sarrerara eta langileei buruzko aldagaietako bakoitzean egiazta daiteke. Aldaki horiek erantsirik daude, sektoreak epe horretan izandako bilakaeraren laburpen-taulan.

1994. urtetik aurrera urteko %7ko tasa metatua duten eta baliokideak diren unitate ekonomikoetan, biztanle bakoitzeko gastua %77 gehitu da; 2003. urtean gastu hori 511 eurokoa izan zen, hau da, duela 10 urte baino 221 euro gehiagokoa. 2003. urtean herri administrazioek sistemara egindako ekarpena biztanleko 353 eurokoa izan zen, duela 10 urte baino 150 euro gehiagokoa; soilik azken urte horretan, egindako ahaleginak 2002. urtearen aldean biztanleko 38 euroko gehikuntza ekarri du.

Herri administrazioak familiei egiten dizkien transferentzien programei dagokienez 2002. urtean emandako jauzi garrantzitsua sendotu egin da aurten:

- GGDren gastua, Oinarrizko Errenta ere deiturikoarena alegia (109,6 milioi euro), %19 igo da; horrek %56ko hazkunde dakar azkeneko bi urteetan, biztanleko 52 euroko gastuarekin. Adierazi beharra dago Araban biztanle bakoitzeko gastua batez bestekoa baino txikiagoa izan arren bi urte hauetan bere gastua bikoiztu egin duela.
- Zenbateko txikiagoetan baina antzeko bilakaera izan da Gizarte Larrialdiko Laguntzetan; 30,2 milioi euro gastatu da eta denera %46ko hazkundera iritsi da azkeneko bi urteetan.
- 2002. urtean hasitako beherakadak jarraitzen du ohiko laguntzako prestazioetan (P.N.C., F.B.S. eta L.I.S.M.I.), 55 milioi euroarekin (%-2).

Azkenik, 2003. urteari buruzko honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Etkez etxeko laguntzaren kontzeptuan 50,4 milioi euro erabili ziren (%+13). Herri administrazioak %90ean finantzatutako zerbitzu honetatik ia 18.000 erabiltzailerik eskaini zitzaizen arreta (%+15) 3,4 milioi orduez.
- Hirugarren adinera bideratutako egoitza-zentroetan, hau da, Gizarte-zerbitzuen baliabide dinamizatzaile eta oinarritzakoan, 1.544 lanpostu sortu ziren eta gastua %24 hazi zen; horrek, zenbateko absolutuetan, aurreko urtean baino 55,6 milioi euro gehiago dakar, eta gizarte-zerbitzuetako guztizko gastuaren %26,8 osatzen du.


1 taula. Aldagai nagusien bilakaera 1994-2003 epean. (Mila euro uneko prezioetan)

	2003	2002	1994	Urte arteko (03/02)	Urteko tasa metatua (03/94)	Aldakuntza- tasa (03/94)
Gastuak guztira	1.073.054	915.747	462.791	17,2	9,8	131,9
Gastu arruntak	786.287	671.719	335.834	17,1	9,9	134,1
Ordainsariak	390.313	340.635	200.828	14,6	7,7	94,4
Bestelakoak	395.974	331.084	135.006	19,6	12,7	193,3
Familiatarako transferentziak	232.086	202.511	111.380	14,6	8,5	108,4
Kapital-gastuak	54.681	41.517	15.578	31,7	15,0	251,0
Entitate eta zentro publikoetako gastuak	639.209	570.144	292.573	12,1	9,1	118,5
Entitate eta zentro pribatuetako gastuak	433.845	345.603	170.219	25,5	11,0	154,9
Finantzaketa publikoa	741.894	642.289	326.806	15,5	9,5	127,0
Finantzaketa pribatua	331.160	273.458	135.985	21,1	10,4	143,5
Biztanleko gastua (euro)	511	444	222	15,0	9,7	130,6
GIZA BALIABIDEAK:	32.657	30.621	23.066	6,6	3,9	41,6
Bertako langileak	18.855	16.797	11.645	12,3	5,5	61,9
Bertako langileak (DOB)	17.224	15.541	10.948	10,8	5,2	57,3
Borondatezkoak	13.802	13.824	11.421	-0,2	2,1	20,8
BALIABIDE MATERIALAK:						
Entitate-kopurua	1.266	1.224	1.019	3,4	2,4	24,2
Zentro-kopurua	2.388	2.305	1.623	3,6	4,4	47,1
Egoitza-kopurua	666	633	381	5,2	6,4	74,8
Barruko plazarak	18.750	17.188	13.051	9,1	4,1	43,7
GASTUA TIPOLOGIAREN ARABERA:						
Biztanleria osoa	388.093	340.790	178.873	13,9	9,0	117,0
Familiatarako transferentziak	227.127	198.050	108.626	14,7	8,5	109,1
Haur-Gazteak(1)	34.003	29.939	39.991	13,6	-1,8	-15,0
Egoitzak	25.567	22.417	13.156	14,1	7,7	94,3
Zaharrak	335.921	268.563	123.646	25,1	11,7	171,7
Egoitzak	287.724	232.156	109.288	23,9	11,4	163,3
Ezgaitasuna	253.904	220.325	96.931	15,2	11,3	161,9
Egoitzak	42.345	39.352	25.128	7,6	6,0	68,5
Lanbide-zentroak eta EZB (2)	162.335	145.357	50.764	11,7	13,8	219,8
Emakumeak	5.817	5.380	2.001	8,1	12,6	190,7
Baztertasuna	55.317	50.750	21.348	9,0	11,2	159,1
BPG	49.572.859	46.559.413	25.660.451	6,5	7,6	93,2
% BPG	2,2	2,0	1,8	10,1	2,0	20,0


(1) 1994an haurtzaindegiak gizarte-zerbitzutat hartu dira, 22.552 mila euroko gastuarekin. 1995etik aurrera jada ez dira halakotzat jo.

(2) Enplegu-zentro bereziak


1. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaara biztanle bakoitzeko (eurotan).



2a. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetako gastuaren bilakaara. (milioi eurotan)



2b. grafikoa. BPGren eta guztizko gastuaren bilakaara. (Indize zk. 1994ko oinarriarekin)



1. Erakundeak eta zentroak

1.1. Erakundeen eta zentroen ezaugarriak eta tipologia

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuak 2003. urtean 1.266 erakunderen inguruan egituratu ziren, eta, horien 2.388 zentroen bitartez, sistemak eskainitako gizarte-prestazioak gauzatu zituzten.

Beren jarduerarekin gizarte-zerbitzuetan parte hartu zuten erakundeen kopuruan %3ko hazkundera izan zen 2003. urtean, aurreko urtearekin alderatuta. Zentroen kopuruari dagokionez, hazkunde-erritmoa %4koa izan zen, aurreko aldi bakoitiaren puntu-erdi bat txikiagoa.

2. taula: Gizarte-zerbitzuetako zentro eta erakundeen banaketa 2003an.

	Euskal AE			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
	Guztira	Publikoak	Pribatuak			
Izakundeak	1.266	313	953	240	679	347
%	100	25	75	19	54	27
Zentroak	2.388	952	1.436	476	1.180	732
%	100	40	60	20	49	31

Banaketa geografikoari begiratzen badiogu, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta zentroen joera herri edo hiri nagusietan pilatzekoa da; zentroen %42 Euskadiko hiru hiriburuetako batean dago. Hiriburuan kokatzearen faktorea Araban gertatzen da gehien, izan ere bertako zentroen %61 dago Vitoria-Gasteizen. Bizkaian metatze-maila bertsua ageri da Bilbo Handiko Eskualdeko metaketa (%71) Arabako Lautadakoarekin (%69) alderatuz gero, baina Bizkaiko hiriburuan zentroen soilik %40 dago kokatuta. Gipuzkoan egoera sakabanatuagoa da: %32 hiriburuan kokaturik dago, eta %50 Donostiako eskualdean. Nolanahi ere, banaketa hori ez da homogeneoa, izan ere oinarritzko gizarte-zerbitzuak, erretiratuak elkarte eta klubak zabal banaturik daude udalerri gehienetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen sarearen ezaugarria kontrajarrita dauden bi erakunde-eredu aldi berean izatea da; alde batetik, "makroerakundeak", kopuruz gutxi dira, %2 eta %5 artean erabilitako aldagaiaren arabera, baina baliabide asko dituzte. Beste muturrean "mikroerakundeak" daude; horiek oso ugariak dira, %80 inguru, baina ez dira giza baliabide eta baliabide ekonomikoen %20 erabiltzera iristen.


Sektore pribatuan mikroerakunde asko izatearen oinarrian bi arrazoi daude, alde batetik elkartegintzak gure gizartean duen garrantzia, izan ere erabiltzaileek horren bitartez ohiko arazoak konpontzeko modua aurkitzen dute, eta bestetik, berriz, enpresa-mundutik datozen zahar-etxe txikiak gero eta kopuru handiagoa. Sektore publikoan, erakunde txiki horiek udalerri txikiak udalek eta udal zahar-etxeak kudeatzeko fundazio publikoek osatzen dituzte. Errealitate hori Gizarte-zerbitzuen Legeak sustaturiko gizarte-sarearen parte da. Izan ere, legeak honelako alderdiak jasotzen ditu: "Gizarteko borondatezko langileen eta irabazi asmorik gabeko erakundearen sustapena", "gizarte-zerbitzuen prestazioan ekimen pribatuak parte hartzeko aukera, horren esku-hartzea araututa", eta gizarte-zerbitzuen arloan udalei emandako eskumenak, biztanleria-kopuruari begiratu gabe eta "deszentralizazio, malgutasun eta herritarrekiko hurbiltasun irizpideei begiratuta".

Gizarte-zerbitzuen arloan jarduten duten erakunde gehienek (%79) beren zerbitzuak zerbitzu bakar baten bitartez gauzatzen dituzte. Soilik erakundearen %5ak du bost zentrotik gorako sarea, baina hala ere horiek sistemaren gastu osoaren %53 biltzen dute. Multzo txiki horretan sartzen dira foru aldundien eta Euskal Autonomia Erkidegoan biztanle gehien dituzten hirien sareak.

Langileen kopuruari begiratuta, berriz ere erakunde txikien ugaritasuna ikusten da, gehienek (%71) 5 langiletik beherako plantila baitaukate. Bestalde, soilik erakundeen %2ak du 100 langiletik gora, eta horiek langileen %53 eta gastuaren %60 osatzen dute.


Ekonomiaren arloari dagokionez, erakundeen ia erdiak (%43) 30.000 eurotik beherako gastu-maila dute, eta horiek orotara guztizko gastuaren %1 osatzen dute; beste muturrean, 22 erakundek (%2), 6 milioi eurotik gorako gastu-mailarekin, sistemaren guztizko gastuaren erdia baino gehiago osatzen dute (%62). Pilaketa handiena Araban gertatzen da, izan ere erakundeen %1ak –guztiak publikoak– gastuaren %74 osatzen du; pilaketarik txikiena, berriz, Gipuzkoan gertatzen da, erakundeen %3ak gastuaren %61 egiten du.

3 grafikoa. Zentroak biztanleria-motaren arabera (% 2003)



Arreta emandako biztanleria-motari begiratuz gero, zentroen %43ak zaharrei eskaintzen diete arreta, %21ak ezgaituei, eta %14 oro har biztanleria osoari zuzentzen zaio; idazpuru horretan sartzen dira droga-mendekotasunari aurrea hartzeko zentroak eta oinarritzko unitateak. Biztanleriaren gainerako sektoreek (haurrak, gazteak, emakumeak, baztertuak) gainerako %22 hartzen dute.

4 grafikoa. Zentroak zentro-motaren arabera (% 2003)



(*) Lanerako zentroak eta enplegu-zentro bereziak

Zentro-motaren arabera, dagoen aukera askotarikoa da; egoitza-zentroak dira ugariak (666), eta eguneke zentroekin batera (547) zentro guztien erdia osatzen dute.

1.2. Erakunde eta zentroetako langileak

Sektoreak 2003. urtean 18.855 pertsonari eman zien lana zuzenean; horietatik 13.088 (%69) emakumezkoak ziren. Kopuru erlatiboetan, horrek esan nahi du laneratutakoen %2,1ak sektore honetan lan egin zuela; kopuru hori %3,6ra iristen da emakumezkoen dagokienez. Ehunekorik handiena, lurraldekoa, Araban izan zen, lanean zebiltzan emakumeen %4,4ak lan egin zuen sektore honetan.


Multzo horrek egindako lana osatu egin zen borondatezko 13.802 langilek, ia denek sektore pribatuan (%99), doan egindako lanarekin eta erabiltzaileei arreta zuzena eskaintzeko azpikontratutako langileen lanarekin, guztira 7 milioi orduko lana; ordu horien erdiak etxez etxeko zerbitzurako erabili ziren.

Langile-kopurua Arduraldi Osoaren Baliokidetzan kalkulatuta 17.224koa da; horrek %7 murrizten du sektorean lan egiten duten pertsona guztien kopurua. Zatiko arduraldian diharduten langileak gehien bat eguneke zentroetan eta udaletako oinarritzko gizarte-zerbitzuetan sartzen dira.

Lanean dabilzan langileak horiek betetzen duten eginkizunaren arabera sailkatuz gero, talderik handiena zuzeneko arretako espezializatutako langileek osatzen dute (%52), eta, talde horren barruan, klinika-laguntzaileen maila gailentzen zaie beste guztiei, langile guztien %20ekin.

Oso garrantzitsua da enplegu zentro berezietako langile-erabiltzaileen presentzia. Zentro horiei babestutako laneko enpresa ere deitzen zaie, eta Ezgaituak Gizarteratzeko Legearen babesean sortu ziren. Zentro horien xedea ezgaituak lanaren bitartez gizarteratzea da. Horregatik sartzen dira maila berezi horretan, gainerako langileetatik bereizirik, alde batetik xedeari begira erabiltzaile zuzenak direlako eta, bestetik, berriz, enpresa modura, langile ordainduak; multzo horretan 4.569 sartzen dira, eta lanean dabilzanen %24 osatzen dute.


5 grafikoa. Bertako langileak, eginkizunaren arabera (% 2003)



Langile horiek beren egitekoak bete zituzten zentro eta erakundearen titulartasunari dagokionez, %31k sare publikoan egin zuen, eta gainerakoak, %69k, pribatuan. Lurraldeka, langileak honela banatu ziren: %17 Araban, %46 Bizkaian eta %37 Gipuzkoan. Gipuzkoan izandako langile-ehuneko handiaren arrazoiak enplegu-zentro berezietan sortutako lan babestuaren kopurua handia izatea da. Hori horrela, horko langile-erabiltzaileak alde batera uzten baditugu, langileen banaketa honakoa izango litzateke: %37 sektore publikoan eta %63 sektore pribatuan. Horrek aztertutako zentro-banaketaekin egiten du bat gehiago. Gauza bera gertatuko litzateke emaitzazko lurralde-banaketan: %19 Araban, %51 Bizkaian eta %30 Gipuzkoan.


Aurreko urtearekiko, enplegu-hazkundera %12koa izan da, eta kopuru homogeneoak izan ditu hiru lurraldeetan. Bere dinamismoa dela-eta sektore pribatua nabarmentzen da (%+17) sektore publikoaren aldean (%+3). Garrantzitsua da aipatzea Araban sektore pribatuaren hazkundera (%+33koa) beste lurraldeetan baino handiagoa izan arren, enplegu publikoak pribatua gaitzen duen lurralde bakarra dela.

6 grafikoa. Bertako langileak, biztanleria-motaren arabera (% 2003)



Zerbitzua jaso duten biztanleen motaren arabera, langile gehienek beren jarduna bi kolektibo hauenganako arretan betetzen dute: ezgaituak, horretan 8.060 langilek (%42) jardun dute, horietatik %18ak arreta asistentziala eskaini du, eta %24 enplegu-zentro berezietako langile-erabiltzailea da; eta hirugarren adina, horretan 7.277 langilek jardun dute (%39). Langileen soilik %19ak jardun du beste taldeenganako arretan.

7 grafikoa. Bertako langileak zentro-motaren arabera (% 2003)




(*) Lanerako zentroak eta enplegu-zentro bereziak

Jarduna non betetzen den kontuan hartuta, langile gehienak egoitzetan (%46) eta lanerako zentro eta enplegu-zentro berezietan (%30) agertzen dira. Aldiz, eguneko zentroek, elkarteek eta bestelakoek zentroen erdia osatzen badute ere, langileen soilik %14 aritzen da horietan; baina borondatezko langileen %80.

1.3. Erakunde eta zentroen gastua

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen sistemari erantzuteak 1.073 milioi eurotan zenbatutako ahalegin ekonomikoa eskatu zuen. Gastu hori hiru sailetan banatzen da: 786,2 milioi euro zerbitzuen prestazioa ordaintzeko gastu arrunta izan ziren (%73); gastu arrunt horren erdia, 390,3 milioi euro, langileen gasturako erabili zen. Familiei egindako transferentzien saila 232 milioi eurokoa izan zen (%22); idazpuru horretan sartzen dira nagusiki: Pobreziaren Aurkako Plana finantzatzeko funtsak (gizarte-larrialdiko laguntzak eta gizarteratzeko gutxieneko soldata), laguntzako pentsioak, Ezgaituak Gizarteratzeko Legearen prestazioak, Gizarte Ongizateko funtsak, eta jaiotzen inguruan seme-alabadun familiei laguntzeko erakunde-arteke planak araututako laguntzak. Azkenik, 54,7 milioi euro kapital-gastuetarako erabili zen (%5).

8 grafikoa. Gastuak izaeraka, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (% 2003)




Guztizko gastuak %17,2ko hazkundera izan zuen 2002. urtearekiko. Gastu arruntak %17,1 egin zuen gora, familientzako transferentziek %14,6 eta inbertsioak %31,7.

Titulartasunaren arabera, gastuaren %60 sare publikoan egin zen, eta gainerako %40a, pribatuan. Lurraldeka begiratuta, sektore publiko eta pribatuaren presentziari dagokionez aldea nabarmena da; hiru lurraldeetatik, Arabako lurraldeak du zentro publikoen sarerik indartsuena, izan ere lurralde-gastuaren %77 hartzen du gizarte-zerbitzuak estaltzeko; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, ez da %60ra iristen.

Gastuaren osaerak gizarte-zerbitzuak lurraldearen arabera ezberdin antolatuta daudela erakusten du; Araban ezberdintasun nabarmenak daude Bizkaia eta Gipuzkoarekiko. Arabako gastuaren %36 sare publikoko langileen gastuak estaltzeko erabiltzen da; gastu hori txikiagoa da Bizkaian (%15) eta Gipuzkoan (%12). Arabako erakunde publikoetan, familientzako transferentziek gastuaren %21 osatzen dute; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, kopuru horrek gora egiten du %46ra eta %30era, hurrenez hurren.


Zentro-motaren arabera, gastu gehiena egoitza-zentroetan (%35) eta lanerako zentroetan eta enplegu-zentro berezietan (%15) egin da. Bestalde, erakundearen zerbitzu zentralak, gastuaren %95 familientzako transferentzietarako erabiltzen dutenez, gastu osoaren %32 osatzen dute.

9 grafikoa. Gastuak zentro-motaren arabera (% 2003)



(*) Lanerako zentroak eta enplegu-zentro bereziak

10 grafikoa. Gastuak, biztanleria-motaren arabera (% 2003)



Arreta jaso duen biztanleria-motaren arabera, biztanleria orokorrari gastuaren %36 eskaini zitzaion, funtsean prestazio ekonomikoen eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren egitasmoen bitartez (horiek soilik hurrenez hurren %21 eta %5 osatzen dute). Gastu-mailan hurrengoak zaharrentzat bideratutako gastuak (%31) eta ezgaituentzat bideratutakoak (%24) dira; gainerako biztanleria-taldeek gastuaren %9 osatzen dute denera.

1.4. Sistemaren finantzaketa


2003. urtean, gastuaren zatirik handiena diru publikoaren bitartez finantzatu zen (%69), eta zehazki, finantza-iturri nagusiak hiru lurralde historikoetako foru aldundiak izan ziren (%36). Udalek egindako ekarpena (%13) eta Eusko Jaurlaritzak egindakoa (%18) oso antzekoa izan zen.

Adierazi behar da aztertutako esparrutik kanpoko partidetatik datozen diru-sarrerak erakundearen beraren funts gisa sartzen direla, Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatuta. Alde horretatik, Administrazio Zentralari esleituriko funtsek diru-laguntza xededun garbiak soilik hartzen dituzte, hala nola, INEMek enplegu-zentro bereziei ematen dizkienak.


Iturri pribatuen bitartez gainerakoaren %31 finantzatu zen; familiek, erabiltzaile eta dohaintzen bidez, %14 eman zuten, zerbitzu-prestaziotik kanpoko salmentek %12 eta, azkenik, erakunde pribatuen ekarpen garbiak %4 osatu zuen.

Lurraldeka, berriz ere Arabak du finantzaketa publikorik handiena (%80). Ondoren Bizkaia dago, %70arekin. Eta azkenik Gipuzkoa, %63ekin; finantzaketa publikoaren mailarik apalena du, berriz ere, bere sare pribatuan enplegu-zentro bereziek duten pisuarengatik.

11 grafikoa. Finantzaketa iturrikan banatuta, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (% 2003)



12 grafikoa. Finantzaketa iturrikan banatuta, titulartasunaren eta lurraldearen arabera (% 2003)



(*) Lanerako zentroak eta enplegu-zentro bereziak

Diru-sarreraren izaerari erreparatuta, hiru dira sistemaren finantza-iturri nagusiak: salmentak eta prestazioak (%24), diru-laguntzak (%34) eta norbere funtsak (%39); bestelako diru-sarrerek %2 osatzen dute soilik. Finantzaketa-egitura hau antzekoa da hiru lurraldeetan erabiltzaileengandik etorritako diru-sarrerei dagokienez, %13 inguruko balioak dituzte. Lurraldeen arteko alde nagusiei dagokienez, Araba nabarmentzen da foru sarearen zentroetan bere baliabideez egindako finantzaketan (%37); Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, zeharkako prestazio handiagoa dago, diru-laguntza eta itunen bitartez. Bestalde, Bizkaiko lurraldeak du Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarik handiena, lurraldeko gastuaren %19, Arabakoaren eta Gipuzkoakoaren bikoitza, hain zuzen. Gipuzkoan, salmentetatik etorritako finantzaketa (%18) beste bi lurraldeetako baino hiru aldiz handiagoa da, hain zuzen ere lurralde horretan ezgaituentzako lan-zentro gehiago daudelako.

Zentro publikoen sarearen finantzaketa nagusiki foru aldundien bitartez (%44) eta Eusko Jaurlaritzaren (%27) eta udalen bitartez (%21) egiten da. Lortutako finantzaketa publikoak denera %92 osatzen du, eta iturri pribatuetatik etorritako diru-sarrerek, berriz, gainerako %8a; horiek salmenten eta prestazioen kontzeptuan lortu dira.

Zentro pribatuei dagokienez, Administrazioetik etorritako itun eta diru-laguntzez finantzatu zen %35. Diru-sarreraren iturri publiko nagusia aldundiak izan ziren, diru-sarreraren %25 eman baitzuten; beste administrazioek, udalek, Eusko Jaurlaritzak eta Administrazio Zentralak gainerako %10a eman zuten. Horretaz gain, ekarpen pribatuak %65 osatu zuen. Diru-sarreraren izaerari dagokionez, %48 salmentetatik eta prestazioetatik lortu da; %37ren jatorria diru-laguntzak eta kontzertuak dira, ia denak herri administrazioarekikoak; partikularrek egindako dohaintzek %4 osatzen dute; bestelako diru-sarrerek %2, eta erakundeetatik bertatik etorritako funtsek, gainerako %7a.

2. Egoitzak


2.1. Zentroak eta plazak

Azterketa hau egiteko, egoitzak zentzu zabalean hartu dira, hau da, azterketarako hartu diren egoitzek arreta eskaintzen dute, modu etengabea edo ez-etengabea, eta ostatua, mantenua eta zerbitzu osagarriak. Zentro horiek askotarikoak dira (etxe funtzionalak, egoitzak, harrera-zentroak, aterpeak, babespeko etxebizitzak, etab.), askotarikoak baitira, halaber, jardueren xede diren kolektiboen beharrak (babesik ez duten adingabeak, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, gauza diren zaharrak, mendekotasuna duten adindunak, ezgaitu psikiko sakonak, autistak, mugimendu-ezintasuna duten ezgaituak, etxerik gabekoak, etorkinak, drogazaleak, GIBak kutsatutako pertsonak, etab.).


Gizarte-zerbitzuen sistema osoan zentro-mota horiek duten garrantzia dela-eta, estatistikak atal bat sartzen du berariaz horien emaitza nagusiei buruz, arreta jaso duen biztanleria-motaren arabera; aldagai horrek kolektibo arruntak elkartzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza-eskaintza 666 egoitzak kudeatu zituzten 357 erakunderen inguruan egituratu zen; horietan, 18.750 plaza eskaini eta 17.113 erabiltzaile eskaini zitzaion arreta. Kopuru erlatiboetan horrek esan nahi du mila biztanleko 9 plaza zeudela. Eskaintitako lau plazatatik hiru hirugarren adinerako erabili ziren.

Egoitza-eskaintza gehien bat pribatua izan zen, egoitza-plazen %63; horien hazkunde-erritmoa publikoarena baino handiagoa izan zen, izan ere azkeneko 10 urteetan egoitza-plaza pribatuen eskaintzak %5 egin du gora batez beste urtean, eta aldiz zentro publikoetan, %2. Lurraldeen artean ezberdintasun argiak daude; eskaintza pribatuak gehiengoa osatzen duen lurralde bakarra Bizkaia da, egoitza-plazen %79 osatzen baitu; Araban eta Gipuzkoan, ordea, %50en inguruan dago.

13 grafikoa. Egoitza-plazak titulartasunaren arabera, lurraldeka eta biztanleria-motaka. (% 2003)


241 egoitza (%36) titulartasun publikokoak dira eta 425, pribatukoak (%64). Egoitza publikoetan 6.900 plazaren eskaintza dago, eta pribatuetan, berriz, 11.850 plaza. Lurraldeka, Arabak 147 egoitza-establezimendu ditu, horietatik gehienak publikoak (%59), eta guztira 3.347 plazaren eskaintza. Bizkaiak 316 establezimendu ditu, gehienak pribatuak (%83), eta guztira 9.317 plaza eskaintzen ditu. Gipuzkoan, egoitza-plazak dituzten zentroak 203 dira, eskaintza orekatuagoa du (%49 zentro publikoak eta %51 pribatuak); 6.086 egoitza-plaza ditu, horietatik %52 publikoa da.

14 grafikoa. Egoitza-plazak, biztanleria-motaren arabera (% 2003)


Egoitza-zentro gehienak, 345 (%52), hirugarren adinekoei zuzenduak dira; guztira 14.550 egoitza-plaza (%78) eta 13.515 erabiltzaile (%79) ditu. Eskaintza horrek esan nahi du 65 urtetik gorako 100 biztanleko 3,8 egoitza-plaza daudela. Sare publikoan 100 zentro eta 5.081 egoitza-plaza daude, eta pribatuan, berriz, 245 zahar-egoitza eta 9.469 egoitza-plaza.

2003. urtean, 25 zahar-etxetan banatutako 1.544 egoitza-plaza sortuta, hazkundera 2002. urtean izandakoa baino handiagoa izan zen. Azkeneko urte hauetan, biztanleria zahartzeak sortutako aukerek gero eta gehiago erakartzen dituen enpresa-sektore bat sartu da sisteman. Araban eta Bizkaiaren eskaintza pribatuak nabarmen egin du gora, gehien bat 30 egoitza-plaza baino gutxiagoko egoitza txikiak eta etxebizitzak. Gipuzkoan, aldiz, zentro pribatuek ez dute hainbesteko hazkundera izan, baina daudenak handiagoak dira.

Zaharren egoitzetan, berriz ere ezberdintasunak ikus daitezke lurraldeen arabera. Arabak zaharrentzako 70 establezimendu dauzka, gehien bat pribatuak (%64), eta 2.498 egoitza-plaza, titulartasunean oreka handiagoa dutenak (%48, egoitza-plaza publikoak eta %52, pribatuak). Bizkaiak eskema erabat pribatua du. 183 egoitza ditu, eta horietan 7.368 egoitza-plaza eskaintzen dira denera, hain zuzen ere Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren egoitza-plazen erdiak. Egoitza-plazen soilik

%19 da publikoa. Gipuzkoan, ordea, egoitza-eskaintza (%60) eta baita egoitza-plazen eskaintza ere (%52) gehien bat publikoa da. 92 zentro eta 4.684 egoitza-plaza ditu.

Hirugarren adineko egoitzen ehuneko txiki bat soilik (guztira 31) dago berariaz lagunduriko zaharrentzat bideratua, 2.105 egoitza-plaza, hain zuzen (%14). Gainerakoa honela banatzen da: 78 gauza diren zaharrentzat, eta 236 egoitza misto (%68), gauza diren zaharrentzat eta lagundurikoentzat, 11.269 egoitza-plaza, hau da, hirugarren adinera bideratutako egoitza-plazen %77. Egoitzan bizi diren zaharren artean, lagundurikoek (%66) urteko %8ko hazkundera izan dute azkeneko 5 urteetan; gauza diren erabiltzaileen kopuruak, ordea, mantendu egin dira.


Eskaintako egoitza-plazen bolumenari begiratuta garrantzian hurrengoak ezintasuna duten pertsonentzako egoitzak dira, hau da, 98 zentro eta guztira 1.532 egoitza-plaza; horietatik %56 establezimendu pribatuek eskaintzen dute. Establezimendu eta egoitza-plaza gehienak ezgaitu psikikoentzat bideratzen dira, eta soilik zentroen %15 eta egoitza-plazen %14 bideratzen zaie ezgaitu fisikoei. Sektore honetan gehien erabiltzen den zentro-mota ezgaitu psikiko arin-ertainentzako etxebizitza-egoitza funtzionalak dira (60) (%51).

Horretaz gain, haur-gazteentzako 68 egoitza-zenfro daude, gehienak txikiak; horien egoitza-plazen eskaintza 917koa da, horien erdiak titulartasun pribatukoak dira (%50).

Baztertuentzat bideratutako egoitza-plazak dituzten 103 zentroen multzoa da heterogeneoena, bai bere tipologiarengatik (gizarte-larrialdiko etxebizitzak, pasadizokoen aterpetxeak, komunitate terapeutikoak, etab.) baita horien arretaren xede diren sektoreen tamainarengatik ere. 103 zentroetatik %76, 13 egoitza-plaza baino gutxiagoko etxebizitzak dira, gehienak titulartasun pribatukoak; 1.420 egoitza-plaza dituzte, %32 sare publikoan eta %68 sare pribatuan.

Azkenik, badago emakumeei arreta eskaintzera bideratutako zentroen kopuru txiki bat, 52 dira guztira, gehienak publikoak, eta guztira 331 egoitza-plaza dituzte. Egoitza horiek txikiak dira, eta larrialdiko etxebizitza motakoak.

15 grafikoa. Zaharren egoitzen erabiltzaileak, adin-taldeka eta sexuaren arabera (% 2003)




2.2. Erabiltzaileak

Egoitza-zerbitzuen 17.113 erabiltzaileetatik 13.515 hirugarren adinekoentzat diren zentroen erabiltzaileak dira. Egoitzen erabiltzaileen erdiak (%52) mendekotasuna duten zaharrak (8.915) dira, eta horiek, era berean, hirugarren adinekoentzako zentroetan bizi direnen %66 osatzen dute. Azkeneko bost urteetan egoitzan sartutako zaharren bilakaerari begiratzen badiogu, gauza diren zaharrena negatiboa da, bai egoitza publikoetan, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeek kudeatutako egoitzetan ere; 2003. urtean egoitzaratu diren zaharren %72 mendekotasuna dutenak dira.

Egoitzetan bizi diren hirugarren adinekoen ezaugarriak aztertzen badira, ikusten da gehienak emakumezkoak direla zaharren egoitzetan (%70), eta horien presentziak gora egiten duela adinean aurrera joan ahala; lurraldearen arabera dagoen ezberdintasuna Arabako %67ren eta Bizkaiko %72ren artean dago. Adinaren arabera, erabiltzaileen banaketa honakoa da: %17, 75 urtetik beherakoa; %40, 75 eta 85 urte bitartekoa; %23a, 85 eta 89 urte bitartekoa, eta gainerako %20a, 90 urtekoa edo hortik gorakoa. Lurraldeari erreparatuta batetik bestera alde handia ez baldin badago ere, Gipuzkoan egoitzetan bizi diren pertsona adindunak zaharragoak dira, baina aldea txikia da Araba eta Bizkaikoekiko.

16 grafikoa. Ezgaituen egoitzak. Erabiltzaileak, adin-taldearen eta sexuaren arabera (% 2003)



Ezgaituen egoitzetan, %48 emakumezkoa da, ehunekorik txikiena Gipuzkoak du (%45). Egoitzaratutako ezgaituen pertsonen arteko banaketa, adinaren arabera, honakoa da: %11, 25 urtetik beherakoa; %26, 25 eta 34 urte bitartekoa, eta %63, 35 urtetik gorako pertsona helduak. Gehien agertzen den adin-taldea 35 eta 44 urte bitartekoa da (%33), eta gutxien ageri den adin-taldea (%1,2) 15 urtetik beherako erabiltzaileena da. Bestalde, 65 urteko eta hortik gorako erabiltzaileak gutxi dira (%1,5), eta horren arrazoia normalean adin horretara heltzean zaharren egoitzako erabiltzaile izatera pasatzen dela da.

Erabiltzaileen artean gertatzen den mugimendua kontuan hartzen bada, esan liteke 31.000 pertsonak jo zutela egoitza-zerbitzuetara 2003. urtean, aurreko urtean baino %10 gehiagok. Zenbateko horrek %81 handitzen du estatistikan erabili ohi den erabiltzaile-kopurua (abenduarien 31ko datan). Hazkunde horren alderdirik gehiena baztertuentzako zentroetatik dator, izan ere horietan urtean egoitza-plaza bakoitzeko 7 erabiltzailearen batez bestekora iristen da, beste kolektiboetan izaten den 1,3 baino askoz ere kopuru handiagoa. Alde handi horren arrazoia arloaren ezaugarriak berak dira, izan ere egoitza-baliabide gehienak egonaldi motzerako dira; zehazki, aterpetxeetan, ia 8.000 pertsonak erabili zituzten aterpeteko 249 plazak, hau da, plaza bakoitzeko 31 erabiltzaile izan ziren.

2.3. Egoitzetako langileak

Abenduaren 15ean, egoitza-zentroetako langileen kopurua 8.610ekoa zen, gehienak emakumezkoak (%85). Funtzionalki, langile horiek honela banatzen dira: zuzendaritza eta administrazioan 799 langile (%9), zerbitzuetan 1.793 langile (%21), 4.277 osasun-langile (%50) eta gainerako langileak heziketako langileak, langile teknikoak eta bestelakoak. Lanbide-sailkapenari erreparatuta, klinika laguntzaileak, ostalaritzakoak eta garbiketakoak egoitzetako langileen %60 osatzen dute, eta emakumezkoen %65.

Langileen azterketa bertako langileak kontuan hartuta egiten bada ere, ez dira ahaztu behar, batetik, borondatezko langileak, izan ere 1.219 pertsonak beren zerbitzuak doan eskaini zituzten eguneko ordubetez batez beste; eta, bestetik, azpikontratutako langileak, 1.771 langilek batez beste egunean 4 ordu eginez arreta eskaini zieten erabiltzaileei guztira 2,4 milioi orduz 2003. urtean.

2003. urtean guztira lan egindako 13,2 milioi ordukin, urteko batez besteko langileen kopurua 8.898ra iritsi zen, %3ko hazkundearekin. Lan egin zuen langileriaren %70ak soldatapeko finko gisa lan egin zuen, %25ak behin-behineko langile gisa, eta gainerako %5ak autonomo modura.


Zentroen titulartasunaren arabera, bertako langileen %32, aurreko urtean baino sei puntu gutxiago, zentro publikoei dagokie. Lurraldeka ikusita, %19ak Araban lan egin zuen, %52ak Bizkaian eta %29ak Gipuzkoan.

Langile-kolektibo horren arretaren xede izan den biztanleria-motari dagokionez, langileen %78ak hirugarren adinekoen arloan lan egiten du, %14ak ezgaituen sektorean, %5ak haur eta gazteentzako egoitza-zentroetan, eta gainerako %4ak baztertuen eta emakumeen arloan.

Hirugarren adinerako egoitzetan guztira 6.714 pertsonak lan egiten dute; horietatik %29ak egoitza publikoetan, eta gainerako %71k pribatuetan. Funtzionalki, %60 osasun-langilea da, %22 zerbitzuetako langilea, eta gainerako %18 administrazio langileek, langile teknikoek, heziketakoek eta bestelakoek osatzen dute. Gauza diren zaharren egoitzetan zaintzaileentzat diren lanpostuen ordeztasuna duten zaharren edo lagunduriko zaharren egoitzetan klinika-laguntzaile lanpostuak daudela ikusten da, eta horietan langileen %53ra iristen dira. Azkenik, adierazi behar da egoitza publikoetan azpikontratazioen erdia baino gehiago (%57) arreta zuzenerako langileen artean egiten dela.

Pertsona ezgaituentzako egoitzek guztira 1.123 langileko plantila dute; horietatik, gehienek psikiko larri-sakonentzako establezimenduetan lan egiten dute. Lanbide-sailkapenaren arabera hauek nabarmentzen dira: klinika laguntzaileak (%11), monitoreak (%16) eta zerbitzu pertsonalak (%38). Azken maila hori, etxez etxeko laguntzaileak eta zaintzaileak ere barne hartuta, %50era iristen da sakon eta larrientzako egoitzetan, monitoreen kaltetan (%7).

17 grafikoa. Egoitzak. Bertako langileak (DOB) 100 egoitza-plazako (2003)



Egoitzek, osotasunean hartuta, 100 egoitza-plazako 48 DOB langileko ratioa dute, eta horietatik 25 osasun-langileak dira. Ez da alde handirik ikusten egoitzen titulartasun publiko edo pribatuaren arabera, baina lurralde batetik bestera badaude ezberdintasunak, izan ere Arabako egoitzek (55 DOB langile) Bizkaikoek (47) eta Gipuzkoakoek (45) baino ratio handiagoa dute. Halaber, ezberdintasunak daude zentroaren tamainaren arabera: 30 eta 100 plazako egoitzetako 41 DOB langileetatik hasita 13 eta 29 plazako egoitzetako 56 langileetara.


Adierazle hori bera aldatu egiten da baliabidearen xede den biztanleria-motaren arabera; zaharren egoitzen osotasunean 48koa baldin bada ere, 68ra igotzen da lagunduriko zaharren egoitzetan, eta laguntza behar ez duten zaharren egoitzetan, berriz, 35era jaisten da; kopuru bertsua azaltzen da

emakumearen eta baztertuen arloan ere. Giza baliabide gehien eskatzen duten egoitzak haur-gazteentzako zentroak dira, 56 DOB langile, eta ezgaituentzako zentroak, 59 DOB langile; zehazki, ezgaitu fisikoei laguntzeko zentroetan, horietan 100 plazako 89 DOB langile baitaude.


2.4. Egoitzen gastua

Egoitza-zentro horien mantentze-lanetara bideratutako ahalegin ekonomikoa 373 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %21 gehiago. Titulartasunari dagokionez, lehenengo aldiz 2003. urtean izan da zentro pribatuen gastua (%53) zentro publikoetan egindakoa baino handiagoa. Egoitzen gastu arruntak %92 izan ziren, 343,8 milioi euro, erdia langile-gastuen atalera bideratua. Lurraldeka, gastuaren %20 Arabari zegokion, %50 Bizkaiari eta %31 Gipuzkoari.

18 grafikoa. Egoitzak. Gastuak, izaeraren arabera (% 2003)




19 grafikoa. Egoitzak. Gastuak biztanleria-motaren arabera (% 2003)




Egoitzen guztizko gastua honela banatu zen arretaren xede izan zen biztanleria-motaren arabera: %77 zaharren egoitza-zentroetan; %11 ezgaituentzako zentroetan, %7 haur eta gazteentzako egoitzetan, eta gainerako %5a baztertu eta emakumeentzako egoitzetan.

20 grafikoa. Egoitzak. Gastuak izaeraren arabera, titulartasuna, lurraldea eta biztanleria-mota bereizita (% 2003)



Egoitza-plaza bakoitzaren batez besteko gastu arrunta 18.574 eurotara iritsi zen. Lurraldeka, Arabak, plaza bakoitzeko 21.656 euroko gastuarekin, 3.000 euro baino gehiagotan gaingitzen du Bizkaian eta Gipuzkoan izandakoa. Zentroen titulartasunaren arabera, indize hori aldatu egiten da sare publikoko 24.518 euroen eta sare pribatuko 15.090 euroen artean.


21 grafikoa. Egoitza-plaza bakoitzeko gastu arrunta zaharren egoitzetan (2003)



Egoitza-plaza bakoitzeko gastu arrunta zaharren egoitzetan 19.471 eurokoa izan zen, egoitza mistoetan –hau da, gauza diren zaharren eta lagundurikoen egoitzetan- izandakoaren antzekoa. Ratio hori nabarmen aldatzen da egoitza-motaren arabera: %42 hazten da lagunduriko zaharrentzako egoitzetan (25.362 euro) eta %47 jaisten da gauza diren zaharrentzako egoitzetan (8.505 euro).

Ezgaituen sektorean ratio hori plaza bakoitzeko 26.781 eurora igotzen da; nolanahi ere, alde handiak daude artatutako ezgaitasun-motaren arabera, izan ere psikiko larri-sakonentzako egoitzetan 32.000 eurokoa izan zen eta ezgaitu psikiko arin-ertainentzako egoitzetan, berriz, 23.000eurokoa.

Haur-gazteentzako egoitzen sektorean, plaza bakoitzeko gastua 27.772 eurokoa izan zen. Baliabide gutxiago eskatzen dutenez, emakumeei arreta eskaintzeko egoitza-zentroetan izan zen ratorik txikiena, hain zuzen ere plaza bakoitzeko 5.061 euro.


22 grafikoa. Plaza bakoitzeko gastu arrunta ezgaituen egoitzetan (2003)


Egoitza guztietarako DOB langileen batez besteko ordainsaria 24.472 eurokoa izan zen; lurraldeka, gehiena Araban izan zen, 30.904 euro. Zentroen titulartasunaren arabera, indize hori sare pribatuko zentroetan (16.986 euro) baino askoz handiagoa da sare publikoko zentroetan (41.143 euro).

Arretaren xede izan den biztanleria-motaren arabera, berriz ere alde nabarmenak agertzen dira: emakumearentzako egoitzetako 16.014 eurotatik hasita ezgaituentzako egoitzetako 35.812 eurotara. Zaharren egoitzetan DOB langile bakoitzeko batez besteko ordainsaria 22.568 eurokoa izan zen.

2.5. Egoitzen finantzaketa

2003. urtean egoitzak gehien bat diru publikoaren ekarpenaz finantzatu ziren (%58); erabiltzaileek gastuaren %31ren baliokide den zenbatekoa eman zuten jasotako prestazioen ordainketa modura, eta gainerako %11 erakunde pribatuak emandako diruaz eta partikularren dohaintzez finantzatu zen. Ekarpene publikoen atalean foru aldundietatik etorritako funtsak (%48) eta udaletatik etorritakoak (%9) nabarmendu ziren.

23 grafikoa. Egoitzak. Finantzaketa, titulartasunaren eta biztanleria-motaren arabera (% 2003)


Lurralde batetik besterako aldeei dagokienez, finantzaketa publikoa handiagoa izan zen Araban, %72; Gipuzkoan, ordea, %57koa izan zen eta Bizkaian, berriz, %53koa. Bestalde, salmentetatik eta prestazioetatik etorritako diru-sarrerak handiagoak izan dira Bizkaian eta Gipuzkoan (%32) Araban baino (%27).

Finantzaketa-iturri nagusiak ezberdinak izan ziren egoitzen titulartasunaren arabera. Egoitza publikoak salmenta eta prestazioen bidez finantzatu ziren %20an, eta gainerakoa ekarpen publikoen

bidez. Egoitza pribatuetan salmenta eta prestazioen bidezko finantzaketa %41era iritsi zen, herri administrazioetik etorritako diru-laguntzek eta kontzertuek %38 osatu zuten, erakunde pribatuek %18 eman zuten eta, azkenik, dohaintzek soilik gainerako %2 osatu zuten.

23. grafikoan ikus daitekeen moduan, finantzaketaren osaera oso ezberdina da baliabideen xede den biztanleria-motaren arabera; hirugarren adinekoen sektorean ekarpen publikoa txikiagoa da (%50) eta familien ekarpena handiagoa, funtsean salmenta eta prestazioen kontzeptuan (%38); beste muturrean, finantzaketa publikorik handiena haur eta gazteen sektorean izan da, izan ere ekarpen publikoa %98ra iristen da.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.eus